

PRENTSA OHARRA: 2019.12.04

Eider Rodriguez, euskal literaturaren ordezkari Guadalajarako Liburu Azokan

- Abenduaren 5 eta 6an egingo du azokara bisita, hainbat ekintzetan parte hartzeko; horrez gain, beste hitzordu batzuk ditu Mexikon.
- Etxepare Euskal Institutuak euskal idazleen presentzia bermatu du Guadalajaran hamar urtez jarraian, euskal literaturari bertan erakusleioa eskaintzea helburu.

Azaroaren 30ean ireki zituen atea FIL Guadalajara liburu azokak eta, aurten ere, euskal literaturaren presentzia bermatua egongo da bertan. Urtero milaka egile, profesional eta editore biltzen dituen Iberoamerikako literatura jaialdirik handienean Eider Rodriguez (Errenteria, 1977) izango da aurten euskal literaturari ikusgaitasuna ematen, lehen lerroko beste hainbat nazioarteko autorerekin batera.

2018. urteko Euskadi Literatura Sarietan birritan saritua izan den Rodriguezek, horrela, jarraipena emango dio azken urteotan azokan egon diren euskal idazleen zerrendari. Kirmen Uribe, Iban Zaldúa, Arantxa Urretabizkaia, Bernardo Atxaga, Karmele Jaio, Harkaitz Cano, Mikel Ayerbe, Anjel Lertxundi eta Juan Kruz Igerabide izan dira azken bederatzi urteetan, Etxepare Euskal Institutuak sustatuta, bertan egon diren euskal idazleak. Halaber, urtero legez, Euskal Editoreen Elkarteak eta Euskadiko Editoreen Elkarteak dozena bat argitaletxe bilduko dituzte azokan aurkitu ahal izango den postu batean.

Rodriguezek, orain gutxitik *Bihotz Handiegia* izeneko bere azken kontakizun liburuaren gaztelaniarako eta katalanerako itzulpenak kalean dituela, azokaren programa ofizialeko bi jardueratan hartuko du parte. Horrekin batera, euskal literaturari ahalik eta oihartzun handiena emateko helburuz, Etxepare Euskal Institutuak agenda mediatiko sendoa antolatu du berarentzat.

Bihar, abenduak 5, 'Ecos de la FIL' izeneko atalean hartuko du parte Eiderrek. Atal honen helburua, idazle gonbidatuak FIL Guadalajara azokaren eremutik atera eta unibertsitate edota institutu etako ikasleekin euren zentroetan harremanetan jartzea da, eta testuinguru informalean gauzatzen diren hartu-emanen bitartez, ikasle horiengan irakurzaletasuna sustatzea. Rodriguez UTEG Plantel Olímpica zentrora joango da 17:00etan, bertako ikasleekin solasean aritzera; ikasleek, jarduera horretan parte hartu aurretik, idazlearen lan batzuk irakurriko dituzte.

Halaber, abenduaren 6an, Nazioarteko Ipuingileen Topaketan izango da Eider Rodriguez, arratsaldeko 18:00etan. Mahai-inguru izaerako topaketa honetan ipuingintzaz arituko da euskal autore nazioarteko beste izen batzuekin batera: Rosina Conde (Mexiko), Felix J. Palma (Espainia) eta Diego Muñoz Valenzuela (Txile). Alberto Chimal autore mexikarrak gidatuko du mahai-ingurua.

Hori guztia baino lehen, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Mexiko Hirian izan zen idazlea. UNAM-en (Universidad Nacional Autónoma de México) bertako euskara eta euskal kultura irakurleak antolatutako ekintza batean hartu zuen parte; izan ere, Rodriguezen ipuinetan oinarritutako antzerki lehiaketa bat antolatu dute azaroan zehar, eta egun horretan izan zen finala. Idazleak finaleko obrak ikusi zituen eta, ostean, solasaldia izan zuen bertako ikasleekin.

Iberoamerikako literatura jaialdi nagusia

Munduko literatura jaialdi garrantzitsuenetakoen artean kokatzen da FIL Guadalajara; Iberoamerikako liburugintzaren profesionalentzat, gainera, urteko hitzordu nagusia da. 33. edizio honetan 800dik gora egile bertaratuko dira, 20.000tik gora profesional elkartuko dira eta ehunka nobedade aurkeztuko dira.

Bederatzi egunotan zehar, mundu mailan ezagunak diren egileak ari dira azokatik igarotzen. Gaztelaniazko literaturako izen nabarmenez gain – Mario Vargas Llosa, Javier Cercas, Leila Guerriero edota Antonio Muñoz Molina, besteak beste – badira beste hizkuntzatan idazten duten idazle ezagunak ere: esaterako, Amin Maalouf idazle eta kazetari libanoarra, Siri Hustvedt idazle eta poeta norvegiar-amerikarra edota Frank Miller komikigile estatubatuarra.

Azokak sail ezberdinak ditu bere baitan: liburuen postu guztiak biltzen dituen azoka-eremuaz gain, FIL niños izeneko umeentzako atala ere badago, baita FILantropía izeneko atala ere. Halaber, azokaren pabilioitik at dauden beste sail batzuk aurki daitezke, Eider Rodriguezek parte hartuko duen Ecos de la FIL, esaterako. Urtero, azokak munduko lurralde edota herrialde bat aukeratu ohi du gonbidatu berezi gisa, eta programa oso bat antolatu ohi du herrialde horrekin elkarlanean; aurten, herrialde hori India izango da, eta aurreko urteko Portugalen erreleboa hartuko du.

Autoreari buruz

Eider Rodriguez Erreterian jaio zen, 1977an. Haurra zenetik eduki zuen irakurtzeko zaletasuna, batik bat bere gurasoek transmitituta. Euskal Herriko Unibertsitatean, Parisko Sorbonne Nouvelen eta Madrilgo Complutense Unibertsitatean egin zituen ikasketak. Publizitatean lizentziaduna eta literaturan doktorea da.

Editore zela, bere lehen kontakizun liburua argitaratu zuen, *Eta handik gutxira gaur*, eta 26 urte zituela, *Haragia* (2007). *Katu jendea* etorri zen gero (2010), eta ostera *Bihotz handiegia* (2017), bere azken kontakizun liburua, Zilarrezko bi Euskadi Literatura Sari jaso dituena.

Ez du narrazioa bakarrik jorratu Rodriguezek. Editore izateaz gain, gidoilari eta itzultzaile ere izan da, eta beste genero batzuetako lanak ere argitaratu ditu, hala nola komikia (*Santa familia*), saiakera (*Idazleen gorputzak* eta *Itsasoa da bide bakarra*) eta itzulpena (Irene Nemirovskyren *Le bal*). Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza eta Literatura arloko irakasle da Donostian, eta Hendaian bizi da.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus